

Nu!



Ekainaren 18an
hasiko dira San Joan jaiak



Noren esku geratuko ote da
Sarrailako Giltza?



¿Enpresa daukazu?

Orduan ezagutu beharko zeniguke,

ZEUK-en aurkituko duzu:

Publizitatea, Diseinua, Komunikazioa,
Komertzialak harromanak, Digitalgintza eta
Grafikagintza, Merchandising, Bisita Txartelak,

Buzoiraketa, Markoztasuna, Plastifikazioak,
Enkuadernaketak, Fotokopiak baita Koloretan,
Inprimaketa laserra, Arropa pertsonalizatua,

Eranskailu apaingarriak, Bulegoko materiala.

Agur t' erdi

Etorri eta tratatu.

Aldaketa ikusiko duzu.

Prezio bereziak
autonomoentzat



Bordaberri 1 Behea 20170 Usurbil - Gipuzkoa - Tel. 943 377 946 Fax. 943 377 947

**JAR E1A1U PUBLIZITATEA
FESTETAKO ALE BERE1TETAÑ!**

Bordaberri 3 - 20170 Usurbil - 943 360 321
www.noaia.com - publicitate@noaia.com

USURBILGO HAUR ESKOLA

ondo Pasa San Joanetan!

ALUAL S.L.

*Ugalde
industrialdea,
Nº20- bajo
Telf: 943 370 506
Fax: 943 370 550
20170 USURBIL*

*Aluminiozko aroztegia
Zubi termikoaren hausturarekin
Egurraren imitazioa
Poliuretanozko Belkopur leihoak*

Txirrikitutik !

Gure Arte Bilguneak Patxi Segurola preso usurbildarri elkartasuna adierazteko Parisera antolatu zuen martxa gogora ekarri nahi izan dut oraingoan. Bost urte pasa diren arren, elkartasunezko martxa honetan parte hartu zuten 42 lagunek ez dute egun hura hain erraz ahaztuko. Pariserako bidai guztiak bezala, bidaia luzea eta gogorra izan bazen ere, guztiek gogoz eta indarrez iritsi ziren La Santé kartzelaren aurrera. Bertan, frantsesez zioen “Euskal Presoak Euskal Herrira!” pankarta ireki eta Patxi eta bertan zeuden beste euskal presoenganaino iristen ziren oihuak bota ziren. Une hunkigarriak izan ziren, kanpoko oihuak, barrukoek botatakoekin nahastu ziren: txistuak, agurrak, kantuak.... Ondoren, jendarmeez hainbatetan inguratu eta geldiarazi zituzten. Azkenean, autobusa iritsi bitartean Pariseko Saint-Michel plazan, izen bereko iturriaren aurrean egotera behartu zituzten. Argazki hau ateratzeko tartea hartu zuten ordea. Orain berriz, bost urte pasa ondoren, epaiketa etorri da. Bost euskal preso eta hamar bretoi epaitzen dituzte. Patxiri elkartasuna adierazteko oraingoan ere autobusa antolatu da eta berriz ere bertara joateko aukera izango da Patxiri elkartasuna adierazteko.

Zalao Arnaiz Ibarguren



Egilea eta jabetza: Gure Artera Bilgunea
2000. 02.12, Paris

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbiet, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobiet, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Jantziekin atonduta egin dituzte azken entseguak.

Aurkibidea

ZUTABEAN, LUIS ARANALDE _____ 4. ORR.

TINDOUFEKO KANPAMENTUETATIK _____ 5. ORR.

AURREKONTUEKIN BUELTAKA _____ 10. ORR.

EKAINAREN 11N, HERRI ANTZERKIA _____ 12. ORR.

Ekainaren 11ko herri antzerkiak jakinmin handia piztu du. “Sarrailako giltza” antzezlanetan, 45 herritar pasako dira taula gainetik.



PATXI SEGUROLAREN EPAIKETA HASI DA _____ 14. ORR.

ZIALTZETA JOAN ZAIGU _____ 15. ORR.

III. PILOTA ASTEA _____ 17. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrira!

Zutabea !



LUIS ARANALDE

Bullyng-a

Ikastaro honetan bi gaztetxok bere buruaz beste egin dute, edo hobeto esanda, suizidatu egin dituzte. Ikasleen arteko tratu txarren iceberg-aren tontorra agertzen digute herio horiek. Eta, aditu guztien arabera, gehitzen doaz haur eta gaztetxoaren arteko eraso horiek.

Eskola bezain zaharra da fenomeno hau; neroni 32 urtez aritu naiz irakaskuntzan eta beti ezagutu ditut horrelako jokabide tamalgarriak. Sarritan 10-14 urteko bueltan gertatzen dira gehiegikeria hauek. Britania Handian %10ak jasan omen ditut txarrak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.ean. Hemen, %6ak dirudienez. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 3. eta 4.ean gutxitzen doaz eraso horiek.

Zein da erasotzailearen perfila? Norbaitek definitzen zuen "benetako makarra aprendiza" bezala. Segurtasun gabezia handia dute horrelakoek; beren moduko koadrilaren babesean bakarrik sentitzen dira indartsu; enpatiaren arrastorik ez dute; txulerialariek berehala daude. Biktimak 'matxakatzeko' errukirik ez dute: irainak, kolpeak, mehatxu mota guztiak... Gezurra dirudi adin horretan horren gaiztoak nola izan daitezkeen. Nik beti pentsatu dut ontasunak eta gaiztotasunak ez dutela adinik. 10 urterekin eta gutxiagorekin ere ezagutu ditut haur onak, solidarioak, edozein gehiegikeria salatzen prest daudenak, leialak... Baina, baita alderantzizkoak ere. Guk badugu geure baitan halako askatasun gunetxo bat, eta libertate hori batzuetan ongi erabiltzen dugu eta besteetan gaizki.

Ikasleen arteko erasoak aztertzerakoan arrazoi asko eman daitezke; hona hemen batzuk: permisibitate osoan hezten ditugu gure haurrak; zer nahi, hura dute; etxean errege edo erregeen dira eta etxetik kanpora berdina izan nahi dute.

Haurrak txikitandik jakin behar ditut gizartearen bizitzeko jarritako dauden arauak eta hausteak dakartzan ondorioak. Mugak garbi jakin behar ditut, bestela ez baitu erreferentzi punturik.

Indarkeria giro batean bizi dira: zenbat hilketa eta bortxakeria ikusten dute: zinemak, telebista... Zenbait programek zaborreria besterik ez dago. Indarkeria eta axolagabekeria banalizatu egin du gure gizarteak; ez harritu, beraz, sufimenduen aurrean sentiberatasuna galtzen badute.

Irakasleak ez daude behar bezala babesturik; garai batean itzal handia zuten gizarteak; gaur, aldiz, zaila dute libreki neurriak hartzea: berehala dituzte gurasoak gainean. Ezin itzuliko gara aintzinako metodoetara, baina, guraso eta irakasleek elkarlan estuagoa egin behar dute, batez ere haurren erasoak kontrolatzeko orduan.

Gaztetxoaren koldarkeria: Jokin eta Cristinaren kasuan oso ondo zekiten inguruko haurrek zer gertatzen ari zen. Bietan "vox populi" omen zen (tratu txarrak, alegia). Baina, askoz errazago da bestaldera begiratzea. Eta bien bitartean, erasotzailea gero eta harroago eta biktimak are eta bakartiago eta traumatizatuago. Kalbario honek soluziorik izango luke beste ikaskideek babesa emango baliote biktimari. Baina, giza drama guztietan gertatzen dena: solidaritatearen ordez lasaitasun berekoia aukeratzen dute gehienek.

Amaitzeko: Afrikako esaera zahar batek dio haur bat hezteko tribu osoa behar dela. Heziketa lan honetan ere, irakasle, guraso eta gizarte osoak parte hartu behar du. Baina, haurrari jartzen zaizkion mugak eta legeak gizarte osoak errespetatzen ez baditu, bullyng-a gehitzen joango da.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA! IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA! ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Ekainak 24. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Ekainak 17.




K m

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



**ZUMET
J TETXE**

ZUMET MENU K

(Gutx n z 2 l un n z t)

- Etx k h t f - r n s t
- l u r z
- lts sk nts l h z r truf z r z
- Z u x n ur z t r k t s sk
- s lts z
- s z u n u t u r n t kl
- r z h r s lts t n
- Etx k z k n uruk n st n
- t k f



Jose Piñas, SEADen Lagunen Elkarteko kidea

Saharako harresia

Tindoufeko errefuxiatuen kanpamentuetatik itzuli berria naiz. Pozik eta hunkituta itzuli naiz, elkartasun eta berdintasun sozialaren oinarrietan biziaren, saharar emakumeak egiten ari diren lana ikusi eta gero.

Baina, era berean, oso keztatuta bueltatu naiz, bertako egoera eutsiezina baita.

1975 urtean, Espainiak Mendebaldeko Saharako kolonia uztea erabaki zuen. Akordio sekretu eta ilegal baten ondorioz, Maroko eta Mauritaniaren esku utzi zuen Sahara. Honek piztu zuen gerra. Mauritaniak 1981 urtean lurralde hura uztea erabaki bazuen ere, gerrak saharar eta marokoar erreinua artean jarraitu zuen.

1991 urtean, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) bitartekaritza esker, gudan ziren bi aldeek su-eten bat adostu zuten. Bi aldeek, sei hilabeteko epean, autodeterminazio erreferendum bat egiteko konpromisoa hartu zuten. Morokok, aldiz, mendebaldeko gobernuen konplizitatearekin, erreferenduma egikaritzea oztopatu du. Gaur arte.

2.700 km harresi

Bidaia honetan zehar, Lotsaren Harresiaren Aurkako Nazioarteko Bigarren Martxa egin genuen. Harresi hau ezezaguna bada ere, Saharako gatatzari lotuta dagoen ikustezintasuna ordezkatzeko du. Marokok 80. hamarkadan eraiki zuen harresi handia da. Guda bete-betean zela, 2.700 km



LOTSAREN HARRESIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO MARTXAREN IRUDIA.

harresi honekin Mendebaldeko Saharako iparra eta hegoa bereiztu zituzten, familia ugari banaduz (senide askok, 30 urte egin dituzte elkar ikusi gabe). Marokoar 160.000 soldaduk babestua, nazioarteko akordioek galarazitako miliokia minaz inguratuta dago harresia.

Martxan zehar, saharar emakumeen askatasun oihuek pitzadura bat egin zioten Sentimen-ezaren Harresiari. Bestaldean, zelatan zeuden soldadu marokoarrak.

Tindoufen, 200.000 errefuxiatu

1975 urtetik hona, saharar herriaren zati bat Tindoufen (Argelia) bizi da errefuxiatu. Beste zati batek, bere herrian bertan bahiturik jarraitu du, marokoar poliziaren eta armadaren errepresiopean.

Kanpamentuetan errefuxiatuta dauden 200.000 pertsonen artean, pazientzia agortzen ari da. 30 urtez infernua bizi (udan, 50 graduko

hotzberoan), eguneroko sufrikarioen eta betegabeko promesen ondorioz, Saharako herritarren artean bakardade sentimendua nagusitzen ari da.

Lurralde okupatueta, Saharako Intifada zulo bat egiten ari da "Isiltasun Informatiboaren Harresia". Urte askoan, tortura, bortxaketak, desagertzeak, marginazioa eta errepresioaren konplize izan da. Zentsurak eta marokoar monarkiaren kontrol militarrek, intifada moduan piztu den mugimendua ezagutzea galarazi digute. Baina zulo hori hantitu eta harresia botatzeko unea iritsi da. Bestela, gatatzaren konponbide paketsua bideratzeko itxaropena desagertu egingo da.

Bide armatura itzultzea gero eta ozenago entzuten da. Baina argi geratu dadila: Saharako herria izan da bakearen alde lan egin duen bakarra.

Marokok ez du inoiz erreferenduma egin nahi izan. Badaki galdu egingo duela. Frantziar eta espainiar gobernuak marokoar monarkiaren konplize dira, nazioarteko zuzenbide eta justiziaren gainetik, euren interes geopolitikoak eta ekonomikoak defendatu dituztelako. NBEk, bere jarrera pasiboa eta zehatzgabearekin, berdin. Hauek dira gerra prestatzen dihardutenak.

Saharako herriak iraunbizitzeko duen borondateak eta askatasun grina eramango dute justizia eta duintasuna munduko zati honetara.

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olanegia - Gozategia

LABE-GOXO

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GAESA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

PATRI
JATETXEA

plater konbinatuak
eguneroko menuak
ogitariekak

943 362 723

2005 - MAROKOK



ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Zabor ontziak

Orain dela egun batzuk, bera bizi den auzoan (Olarrondon) eguneroko zaborra botatzeko zabor ontzirik ez zegoela aipatu zidan usurbildar batek. Bai, bai. Ongi ulertu duzue, gezurra badirudi ere, bera bizi den etxe inguruan ez omen dago guztiok ongi ezagutzen ditugun gurgildun zabor ontzi berde horietakorik. Berak dioenez, ba omen dago basura plastikoak lurlean uzteko auzotar guztiek ezagutzen duten leku jakin bat. Arazoa da, zakur eta katu ugari biltzen direla beraien artean festa batera joateko hitz eginda baleude bezala, plastiko guzti haiek hautsi eta hondakinek in jolasteko.

Zabor ontziez ari garela, errepidetik Txokoaldera sartzeko bidegurutzean badago bat eta enbarazu handia egiten duena bera.

Izan ere, ez dakit beste inori gertatu zaion edo ez, baina pasa den astean Aginagaldetik etxe aldera nentorren, atzetik kamioi bat nuela, eta kasualitatez Txokoaldera sartzeko intermitentari eman nionean basura biltzen ibiltzen den kamioia iritsi zen zabor ontzia hustutza eta bere atzetik Txokoaldeko auzotar bat zuen kotxean. Imajinatzen al duzue egoera? Nondik sartu behar nuen Txokoaldera? Ez neukan errepidean gelditzerik, zeren kamioia nuen nik atzetik eta Usurbil aldetik ere kotxeak zetozen! Bada, eskerrak basura biltzeko kamioiaren atzean zegoen auzotarrak erreflexu onak izan zituen eta atzera metro batzuk joan zen, niri pasatzeko lekua utziz.

Uste dut beste bueltatxo bat egin beharko dugula laster.



BEGOÑA
REKONDO

Kaleberri

Pakistandarrak gure artean

Ekialdetik etorriak, beren herritik urrun, Usurbilgo kaleetan zehar dabilta kalean gora kalean behera, bizimodu berri baten bila. Zein ote dira?, Nondik ote datozte?, Non bizi ote dira?, Ba ote dute familiarik?, Ba ote dakite erdaraz?, Ba ote dakite euskaraz?, Nahi ote dituzte herritarrekin harremanik?, Zer janariak egiten dituzte?, Zer ohiturak dituzte?.

Galdera hauek eta gehiago egiten ditugu, gure barnean, kalean ikusten ditugun bakoitzean. Beraiekin elkartu gara bere bizitzaz jakitearren.

Hau da emaitza: esaten digute Pakistandarrak direla. Sultan izeneko gizona da erdara gehien menperatzen duena. Islamabab-ekoa da (hiri-burua) eta 9 hilabete daramatza gure artean. Pozik dago hemen, betirako geldituko litzakeela esaten digu. Hona etorri aurretik, 9 urte Arabia Saudin izandakoa, lanean ere. Muhmmadafzal eta Nasir Majeed dira beste bi gizonen izenak. Hauek Gujrat herrialdekoak dira, eta urte eta erdi daramatzate hemen. Batek ondo egiten du erdaraz, besteak ezer ez.

Eta aste guztia lanean ematen dute, igandea izan ezik, janariak etxean egiten dituzte beraien herrian egiten duten erara: oilaskoa, barazkiak eta arroza dira janari nagusiak. Astean bitan erdara ikastera joaten dira. Esaten digute gustoko luketeela euskara ikastea baino oraingoz ez dutela aukera eduki. Bere ama hizkuntza Punjabia da (Pakistanen bi hizkuntza ofizial daude: urdu hizkuntza eta ingelesa). Ingelesa dakitenez, lana bilatzeko orduan, Inglaterrara jotzen dute askok eta askok; erlijioari dagokionez, musulmanak dira eta errezoak etxean bertan egiten dituzte. Noizean behin, Logroñora joaten dira, han mezkita baitaude.

Bukatzeko, esaten digute oporrak beste hiri eta herrialdeak ezagutzeko erabiltzen dituztela. Aurtengo oporretan, Sultanek Espainiako beste hiri batzuk ezagutzeko asmoa du, beste biak berriz Frantziara eta Italiara joateko asmoa dute. Hemengo festak ere gustoko dituzte. Ea aurtengo Santixabeletan gure artean ikusten ditugun.

Jaien usainean

Kaixo denoi, auzotar, herritar, zahar eta gazteoi. Ekainean sartzearekin batera, festa usaina han-hemenka! Lasarteko Buenos-Aires aldekoak hasten direnean, denak ere errenkan etortzen dira; San Juanak, besteak beste Kalexarren, San Pedroak Lasarten, Santixabelak herrian, Santioak Zubietan, San Estebanak Sanextebanen... a zer nolako santu ta santa koadrila!

Noski, orain konturatzen naiz ni zergatik azken bolada honetan hainbeste traktore gora eta behera, lurra prestatu, hazia erein, belarrak moztu, metak egin, landareak sartu... Baserritarrak ere festa usaina hartu eta ordurako libre izate aldera, lanak egiten, zera!

Auzoko jaiei dagokienean, uste dut prestaketan jo ta su dabiltzala haurrentzako, gazteen-



tzako eta helduentzako ikusmirak prestatzen. Joan den urtekoen parekoak badira, izango da zer ikusi, zertan parte hartu eta zer egin ere bai, nahi duenarentzat, behinik behin. Ondo etorri daitezela, ondo pasa eta ongi agurtu ditzagula!

Kalezar



**MAIDER
MAKAZAGA**

Aldatz ixtera goaz

2005eko udaberrian, Aldatz ixtea erabaki dugu. 15 urte luzeotan denda hori izan da gure lana. Atea ireki eta bezeroaren zain egon izan gara. Lan asko izaten zenean estu eta gutxi zenean lasai. Orain jubilatuta bizi nahi dut, lasai, eta eskerrak eman nahi dizkiet gure dendan ibili eta lagundu didatenei. Hala ere, denda ixteak emango dizkigu tristurak.

Oraindik saltzeko gauza asko daude. Lasai etorri eta ikusi eta gustukoa dena hartu eta erosi. Orain badituzue hainbat erraztasun. Beherapenak jarriak ditugu duela bi aste. Beraz, nahi duzenok, hurbildu. Eskertuko dizuegu.



Atxegalde



**MARIA JESUS
URBIETA**

PAKO
AGUDO

Santuen

Auzoko festak prestatzen

Kaixo. Urtero bezala, eguraldi ona hurbildu eta berehalaxe sartzen zaigu uda barruan. Hondartza, oporrak, baino berarekin ere festak. Gure auzokoak oraindik urruti xamar geratzen diren arren, aurtengo bile-rak hasi dira. Azken urte hauetan bezalaxe, Ibaiondo elkartekoak jarri dira martxan baina edonork har dezake parte antolakuntzan lanerako gogoia izanez gero.

Auzo eta herrietako festak pixka bat behera egiten ari direla denok dakigu baina, gure esku dago berreskuratzea. Beti egongo da gurekin zerikusia duen zerbaiteko, lane-rako gogoia behar horretarako. Adibidez, emakume elkartekoak lanerako gogoz agertu dira. Dantza, yoga eta beste ekintzetaz gain,

orain festak antolatzen, a ze martxa daramaten hauek! Zenbat aldiz esan dut atal honetatik gazteek ere parte hartu behar dutela?

Aurten iraileko azken aurreko edota hirugarren astebukaeran izango dira, hau da, 16, 17 eta 18an. Oraindik goiz da nola izango diren aurreratzeko lan asko falta baita egiteko. Zerbait, hala ere, esan dezakegu, ostiralean kontzertua, larunbatean DJa eta igandean bazkaria.

Larunbatetan, azken urte hauetan, DJek animatu gaituzte dantzatzera baina, aurtengo berezia izango da, auzotarra baitugu, Iñaki Larrañaga. Beraz, gonbidapena luzatua dago parte hartu nahi ezker. Agur eta ondo izan.

NEREA
AIZPURUA

Urdaia

San Juan suari buruz....

Agur bero bat guztiei San Esteban alde honetatik. Eguraldi ona etorri zaigula, aizue! Jada beroak eta hondartzara joateko eguraldia etorri zaigu eta uda ere ohartzeko gainean izango dugu.

Eta udakin batera, nola ez... herrietako festak etorriko zaizkigu. Urrutira joan gabe, ekainean San Juanak izango ditugu.

Baserrietan eta edonon ikus ditza-kegu batzuek, San Juan sua prestatzeko lanak hartuak dituztela. Izan ere, ekainaren 23an baserri eta auzo ugaritan udako solstizioa ospatzeko suak piztuko dira.

Gaur egun, batik-bat neska-mutikoei prestatzen dituzte suak baina garai batean, herrietan su bakarra pizten zen; herriko plazan hain zuzen ere.

Udako solstizioarekin batera argia, udaren



gorespina eta garbi izatearen erritoak berpizten ziren indar osoz. San Juan bezperan, ekainaren 23an, Euskal Herriko herri, baserri eta hiri guztietan suak pizten dira. Tradizioz, deabruak eta gaiztakeriak uxatzeko bitartekoa zen sua.

Sua birsorkuntza eta berritze usadio edo ohitura garrantzitsua da. Horregatik, garai batean, San Juan sua pizteaz gain, aurreko urtean bildutako adarrak erretzen ziren eta piztutako adar horiek lurretara eramaten ziren uztak babestu eta indartzeko.

Gerora, ohitura herriko auzo ezberdinetan zabalduz joan omen zen... Beraz, animatu, ea zeinek pizten duen su ederrenena eta indartsuena!!

Lehenengo Jaunartzea

Ekainaren 5ean Lehenengo Jaunartzea egin zuten hiru gaztetxo azaltzen dira argazkietan, hauek dira:

Alazne Arruti Bengoetxea.

Sergio Goikoetxea Azpiroz.

Kristina Lizarza Lekuberria.

Tarte honetatik esker mila, Pilar,

Amparo eta Ixiar katekistei, Aloña trikitalariari, Nerea eta Asier monagiloiei, korua eta organistari, eliza garbitzera etorri ziren guztiei eta Rosamari eta Lurdesi eliza dotore apainduta jarri zutelako, baita Luis apaizari ere, meza egokia eta motza emateagatik.



Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Nola ekainean? Astoak dantzan, umeak lardaskan, aita-amak praka bete lan

Ekaina hilabete bete da guraso eta ume jendearentzat. Eta Zubietan inon baino beteago. Umeek eskolak bukatzeko dituztela-eta,

- ikastolaren festa –aurreko asteburuan–,
- eskola txikien festa –hurrengoan–,
- 5.mailako umeen kantaldia ikastolan –aurreko astean–,
- pandero joleen merienda eskola txikian –hurrengo astean–,
- bertsozale elkarteak antolatutako jai eta txapelketak ...

Hau nahikoa ez eta kirolean ere lehia bizian: Joko Garbin bete-betean, fulbitoan jo eta ke, igeriketan eta judoan ere nor baino nor... Leku guztietara garaiz abiatu eta berandu iritsi. Hau marka!

Gainera: ikastolan hitzaldiak, Zubietako festa batzordean bilerak, festetako dantza-sokarako entsaioak, Errauskailuaren kontrako batzordeak konpostajea bultzatzeko bilerak eta ekimenak, urbanizazio berriaren ordainketak sortzen dituen

haserreak, bilerak eta burukominak ..., burukominak eta bilerak.

-Zubietako batzordean	2 guraso
-Ikastolako batzordean	2 guraso
-Errausketaren	
kontrako batzordean	5 guraso
-Eskola txikiko batzordean	2 guraso
-Gasteizko parlamentuan	1 guraso
-Festetako batzordean	0'5 guraso
Zatitzen ere hasi beharra dago!	
-Auskaloko batzordean	dozena erdia

Zama astunegia gure herriko guraso-bikote zamari urrientzat.

Garagarrilean nola?

Astoari, kartola
Umeari, epistola
Hau da, bai
Gurasoen parabola.

Zubiet



**PELLO
ARANBURU**

Udal aurrekontuekin bueltaka

Maiatzaren 27ko Ogasun Batzordea ez omen zen samurra izan. Batzorde horretan, UHLk udal aurrekontuen inguruko erreklamazioa aurkeztu zuen. Begoña Garmendia udal idazkariak, bestetik, Lurzoruaren Udal Ondareak gutxitzearen ondorioz eman diren beste epai batzuk mahairatu zituen. Egoera honen aurrean, alkateak zera adierazi zuen: udal aurrekontuak behin betiko onartu arte ez dela besterik aztertuko. Maiatzeko ohiko udalbatza plenoan, esate baterako, aurreko plenoko akta baino ez zen bozkatu.

Oreretako kasua, adibide gisa

Udal aurrekontuen inguruan, Begoña Garmendia udal idazkariak hamar sententzi aurkeztu zituen maiatzaren 27ko Ogasun Batzordean (denak 2002-2004 urteetan emandakoak, Lege Autonomikoen ondorengoak). Sententzia denek Lurzoruaren Udal Ondarearen salmentatik edota hirigintzazko aprobetxamenduetatik lorturiko dirua berriro ere lurretan inbertitu behar dela adierazten dute. Sententzia gehienak Espainian emandakoak dira (Valentzia, Madril, Valladolid...), hau da, Usurbilen eraginik ez duen legediaren menpean. Baina sententzia horietako batek, zehazki, Oreretako 2003ko udal aurrekontuak erabat baliogabeak aitortu ditu, aipaturiko bideetatik lorturiko baliabideak ez direlako erabiltzen berriro ere lurra erosteko.

Itxi gabeko gaia

Aurrekontuekin sortu den zioa argitzeko, udaletxetik kanpoko zerbitzu

profesionalen txostenaren zain omen dago alkatezta. Beraz, udal aurrekontuena itxi gabe dagoen gaia dela esan daiteke. Honek suposatzen duen guztiarekin. Bien bitartean, aurrekontuena bideratu arte, plenoetan ez da besterik aztertuko. Maiatzeko ohiko udalbatza plenoan, hain zuzen, apirileko plenoko akta baino ez zen bozkatu.

Pleno horretan bertan, PSE-EEko zinegotzi den Amaya Goyaranek hainbat galdera egin eta idatzi bat ere irakurri zuen. Alkateak, ordea, idatziz erantzuteko eskubideari heldu zion.

PPko Manuel Michelenak, aldiz, plenoaren orduaren gaineko galdera egin zuen. Orain arte, udal korporazioa eguerdiz bildu izan da baina maiatzaren 31ko ohiko plenoa goizeko 8:30ean ospatu zen. Alkateak ez zuen argitu erabaki puntuala ote zen ala aurrerantzean plenoak goizean goiz egingo ote diren.

Aurrekontuak nola daude?

2005eko udal aurrekontuak hasieraz onartu ziren apirilean. Hasieraz onartu eta gero, jendaurreko epea zabaldu ohi da. Epe horretan, erreklamazio bakarra egin da, UHLk aurkeztu duena. Orain, Udalak alegazio hori aztertu behar du. Beraz, oraintxe bertan, *impasse* egoeran dago udal aurrekontua.

Erreklamazio hori argitu ondoren, udalbatza plenoak behin betiko onespena emango lioke udal aurrekontuari. Ondoren, udal aurrekontuak boletinean argitaratu eta orduantxe sartuko lirarteke aurrekontuak indarrean.

Esan dugun bezala, aurrekontuen inguruan sortu den egoeraren aurrean, udaletxetik kanpoko zerbitzu profesionalen txostenaren zain dago alkatezta.



MAIATZEKO UDALBATZA
PLENOKO IRUDIA.

Ugartondoko ekimenak Foru Aldundiaren oneritzia jaso du

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak behin betikoz onetsi zuen Ugartondoko zonaldeari dagokion Usurbilgo Hiri Antolaketa arauen berrikuspena.

Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatu den Koldo Azkoitiak aditzera eman zuenez, foru erabakiari esker 192 etxebizitza berri egingo dira guztira: 48 babes ofizialekoak, 48 tasatuak eta beste 96 libreak.

Ingurua zeharkatzen duen errekatik gutxienez 12 metro atzeratu behar dira eraikinak. Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzaren txostenean agertzen denarekin bat eginez, Aranerrekan ordenamenduz kanpo geratzen dira bai uraren herri jabariko eta zorguneko okupazio guztiak eta bai erreka horri atxikitako hormigoizko pasabideak, sarbideko zabalgunea eta presa txikia ere.

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

K n k l

- L n t z r
G z n z k n r r p
- l l u r n t z k
- F i x r k h r
l u z a n k

Zubiaurrenea, 3 33 17 7

ARRAINDEGIA
PELLO

UT: x K I
T43 21
JGU IL

**M N
CENILL**

k n - n t u r t
t l l n k
r z t z - l u k
n t u r - l u k r h r

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

Eskubide zibil eta politikoen errespetua eskatu du berriz ere UHL elkarguneak

Udal hauteskundeak orain egingo balira, akaso, beste egoera batean egongo litzateke UHL elkargunea. 2003ko udal hauteskundeetan, ordea, giro politikoa bestelakoa zen. Alderdien Legea indarrean jarri berria, Batasuna eta herri plataforma ugari legez kanpo utzi zituzten. Bi urte pasa dira eta bizi duen egoera salatzeko hainbat deialdi egin ditu UHLk.

NOAUA! Egiguzu bi urte hauetako balantzea.

Arantxa Manterola. Bi urtetan haserrea baretu beharko zuen baina haserrea mantentzen da. Ezin da normaltasunez onartu ia 1.200 usurbildarren ahotsa isildu edo baztertu izana. Gure eskubideen defentsan jarraitzeko asmoa dugu.

Are eta larriagoa da egoera, Euskal Herri mailan normaltasun prozesu bat hastekotan dela esaten denean. Hainbeste herritarren ahotsa isilaraztea normaltasun ezaren adierazle da.

Herri mailan, zentzu batean, onarpen hori eman dela ikusi dugu. Gu udalean ez ikustea normaltzat hartzea. Guk jarraitu dugu herrigintzan lanean, gure ahalmen urriak eta oztopoak gaindituz. Jendea, orain, zeozer ari garela egiten ikusten hasi da. Gure herri eredu defen-datzen. Ze emaitza izango duen horrek? Ez dakigu, baina gu saiatzen gara.

N. Bi urteotan, LOREG-aren 182.2 artikulua aplikatzea eskatu duzue.

A. M. EAk eta EAJ-PNVk diote ez daudela Alderdien Legearekin ados. Denak beharko genukeela gure ordezkari-tza politikoa izan. Bi alderdi horien arazoa da ordezkari-tza hori bideratzeko ez dutela ilegaltasunean erori nahi. Artikulu horren bidez gauzak legalki egin daitezke. Nola? Guri dagozkigun eserlekuetan daudenek dimititu egin beharko lukete; ondoren, alderdi horietako zerrenda osoak dimititu beharko luke. Kasu horretan, zerrendan ez dagoen norbait izendatzeko aukera ematen du legeak.

Usurbilen, jada, hori gertatu da. PSE-EEko bigarren zinegotzia ez zegoen zerrendan. Zerrenda osoak dimititu zuen eta alderdiak izendatu zuen gaur egun alderdi sozialistaren bigarren zinegotzia dena.

Esaten dutena egiteko borondate politikoa badute, hori egin beharko lukete.

N. Baina aplikatu al da beste herriren batean?

A. M. Praktikan badakit batzuk beren kargua ez zutela hartu. Kargua hartu eta gerora kargua utzi dutenak ere badira. Kasuistika oso zabala da. Konkretuki legea non aplikatu den? Nik dakidala inon ez. Baina aplikatu daiteke.

N. Legealdi hasieran udalgintzan ari-zeko zailtasunak izan omen zenituzten. Badirudi orain bizi duzuen egoera hobe dela.

A. M. Eman da eboluzioa, baina gure



ALDERDIEN LEGEAK UDALETXETIK KANPO UTZI ZUEN UHL ELKARGUNEA.

eskaeretan ez dugulako etenik izan. Lehen hilabeteetan oso harreman tentsoa izan genuen. EArekin bilera pare bat egin genituen eta alkateak guri informazioa ematen hasia erabaki zuen. Gerora, plenoetan edota batzordeetan ika-mika batzuk izan dira, gure erreklamazioak herritar gisa hartzen dituztelako. Guk, ordea, UHL ordezkatzan dugu.

Bestetik, batzordeetan, hitza ematen digute beti. Aurrekontuen gaiarekin, ordea, ez digute ezertxo ere azaldu; ez dute gurekin euren proposamena konpartitu nahi izan.

“Urrats sendo eta ausartak” emateko eskaera

Maiatzeko ohiko udalbatza plenorako, UHL Elkarguneak mozio bat aurkeztu zuen. Baina udalbatza bilkura horretan apirileko plenoaren akta bakarrik aztertu zen. UHLren mozioak, besteak beste, puntu hauek jasotzen zituen.

“1.- Espainiar Alderdien Legearen aplikazioak sorturiko eskubide zibil eta politikoen urraketa egoera hau ahalik eta azkarren gainditzearen beharra bere

egiten du Udal honek.

2.- Udal honek, 2003ko Udal eta Foru hauteskundeetan, milaka herritarrek bozka bidez emaniko hitza errespetatzearen premia aldarrikatzen du. Norabide horretan urrats sendo eta ausartak ematea, herri honen eta bi Estatuen arteko gatazkaren konponbidean ezinbesteko pausua dela uste du.

3.- Udal honek, herri borondatearen arabera kargurik ez dagokien hautetsiei, LOREG-aren 182.2 artikulua bidea

martxan jartzeko deia egiten die, honen bidez, gure herritarrek duela bi urte adierazi zutenaren arabera Udal osoatu dadin.

4.- Udal hau, ahalik eta azkarren guztioz desio dugun egoera horretara iristeko beharrezkoak diren pausu guztiak emateko prest agertzen da.

5.- Erabaki honen berri herritarrei zabaltzeko konpromisoa hartzen du Udal honek”.

“Sarrailako Giltza” herri antzerkiak jakinmin handia piztu du

Duela hilabete asko hasi ziren entseguak. Orduan, urruti ikusten zen ekainaren 11a. Baina iritsi da egun handia. Taula gainera igotzea edota jendaurrean aritzea, ordea, ez da egunerokogia izaten. Baina denbora honetan guztian nahikoa lan egin dutenez, egun seinalatuan lasai egon daitezke herri antzerkiko kideak.

Entsegu orokor baten lekuko izateko aukera izan dugu eta hona hemen bertan bizitakoaren kronika modukoa.

Itxura ona hartu diogu “Sarrailako Giltza” izenarekin bataiatua izan den herri antzerkiari. Baina ez dugu gidoia aurreratuko. Guk ere sekretuan gordeko dugu. Soilik zera esango dugu: Usurbilgo historian eman diren pasarte batzuetan oinarrituta dagoela. Baina ez da antzerki historiko horietako bat. Zeozer izatekotan, herri antzerki bat da. Hori da hizpide dugun saioa ondoen definitzen duena: kalean, eguneroko bizitzan, bestelako lanetan... ezagunak zaizkigun bizilagunak oholtza baten gainean. Guztiak, komedia ikutua duen gidoi baten inguruan jolasean.

Maila handiko antzezleak

Herri antzerkia dela esan dugu. Dena den, antzezle horietako batzuk maila ona erakutsi dute entseguetan. Aipatzekoa gaztetxoei hartu diegun traza. Antzezle sena duenik bada tarteetan. Eta ez soilik gaztetxoaren artean. Adinean nagusi diren askok ere, gidoia menderatzeaz gain, interpretazioaren arauak ondo baino hobeto ezagutzen dituzte.

Egitasmoaren berri eman zutenetik hona, lagun asko izan dira Agirresarobe anai-arreben ahaleginarekin bat egin dutenak. Adin eta auzo ezberdinetako herritarrak ikusiko ditugu Usurbilgo pilotalekuan ipiniko den eskenatokian. Egun horretan laburbilduko da azken



ENTSEGUETAN GIRO ONA IZAN DA NAGUSI.

hilabeteotako lana.

Entseguak otsaila inguruan hasi ziren. Azken saioak Osinalde industrialdean egin dituzte, Aizpurua Autobusak enpresaren pabilioi batean.

Jantziak, ikusgarriak

Maiatzaren 30eko entsegua ikusteko aukera izan genuen guk. Arratsaldeko 19:00etan hastekoa zen. Batzuk, ordea, berandu zebiltzan. Lanetik atera eta iritsi berriak. Beste batzuk, berandu ez baina lasai asko, presarik gabe. Hantxe zebilen Iñaki Agirresarobe, artzaiak nola, artaldearen gobernatu nahian. Kostata, baina azkenean hasi da entsegua. Gidoia barneratu dute denek, baina zuzeneko emanaldian pentsatzeko unea da. Zuzenketak egin asmoz, entsegua behin eta berriz eten du Iñakik: ozen hitz egiteko ohitura hartu behar, jendeari begira hitz egiteko joera hartu... Giro onean ari dira lanean.

Antzerkia ikustekoa bada, jantzietaz zer esan. Denak eskuz eginak izan dira eta auzolanean. Telak erosi eta laupabost lagunek josi dituzte antzerkiko jantzi denak. Eta nola josi gainera. Julio Caro Barojaren “Trajes Vascos” libu-

ruan oinarritu dira. Ahalegin handia egin dute jostunek eta, horri esker, irudimena lagun, garai bateko Usurbilen murgilduko gara.

Dena prest dago. Egunean bertan, 400 eserleku jarriko dira. Teknikak hutsik egiten ez badu, saio eder baten lekuko apartak izango gara. Has dadila “Sarrailako Giltza”.

SARRAILAKO GILTZA

Eguna: ekainak 11, larunbata
Ordua: 22:00. Sarrera: doan.

KRONOLOGIA

2004ko uztaila. Gidoiaren lehen zirriborroa idatzi zen.

2004ko azaroa. Gidoia guztiz amaitu zen.

2005eko urtarrila. Parte hartzeko deialdi irekia egin zen.

2005eko otsaila. Lehen entseguak hasi ziren.

2005eko ekainaren 11.

“Sarrailako Giltza” herri antzerkiaren emanaldia.

Ekainaren 22an, NOAUA!ren eskutik, Pirritx eta Porrotx pailazoak Usurbilen

Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldiarekin amaituko da. Ekainaren 22an izango dira izango dira Usurbilgo frontoian, arratsaldeko 18:00etan. Baina hori baino lehen, Korri, Xalto eta Brinko saioa izango da Aginagan, ekainaren 11n. Zubietan, aldiz, antzerki musikala, ekainaren 18an.

Santuenean egin zen herri kirol saioarekin hasi zen Plis, Plas, Txalo ta Jolas; udaberriro, NOAUA!k antolatzen duen egitaraua.

Ekainaren 11n, Aginagan, Korri, Xalto eta Brinko

Ondoren, ekainaren 4ko arratsean, magia ikuskizun ederra eskaini zuen Eriz magoak. Kalezarren dagoen Haur Eskolan bildutakoak txundituta utzi

zitu.

Datorren ekitaldia Aginagako izango da. Korri, Xalto eta Brinko ikuskizuna Aginagako pilotalekuan egingo baita, ekainaren 11n, arratsaldeko 17:30ean hasita.

Zubietan, antzerki musikala

Maiatzaren 28rako iragarri genuen Anne Monna Oskola eta Karramarroi antzerki musikala. Baina taldeko batek ezbehar bat izan zuen eta saio hori, azkenean, ekainaren 18an egingo da, Zubietako plazan (euria egingo balu, Lanbide Eskolako aretoan).

Eta bukatzeko, pailazoak

Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldiarekin amaituko da Plis, Plas zikloa. Ekainaren 22an, arratsaldeko 18:00etan, Usurbilgo pilotalekuan.



IKUSKIZUN BIKAINA ESKAINI OHI DUTE PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOEK.

Astekari proiektuarekin aurrera

